

Iragarkiak

Pribatuen Iragarkiak

MUSIKENE

1473

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 19koa, Musikeneko koordinatzailearena, Orkestra Ikasketetako zuzendari-postua goi-zuzendaritzako izaera bereziko lan-harreman bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Musikene ikastegiko Patronatuak onetsitako organigraman hutsik dago Orkestra Ikasketetako zuzendari-postua. Hori dela eta, koordinatzaile naizen honek fundazioaren Estatutuek ematen dizkieten eskumenez eta Patronatuak 2009ko urriaren 27an emandako ahalordean dauden ahalmenez baliaturik, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 13. artikuluan eta Goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-lotura arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATU DU:

Goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-lotura bidezko estaldura iragartzea eta honako klausula hauei jarraituz deialdia egitea.

KLAUSULAK

1.– Kontratuaren iraupena

Kontratuak hiru urte iraungo du, eta urte horiek luzatu ahal izango dira, berariazko hitzarmen bidez, gehienez ere urtebeteko aldietarako.

2.– Kontratuaren iraungipena

Goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-lotura arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoa beteko da. Berariaz adierazten da, aipatutako araudiaren 11. artikuluan aurreikusitako kasuan, goi-zuzendaritzako kideak ez duela kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

3.– Zuzendarigaiek bete beharrekoak

Zuzendarigaiek honako hauek bete beharko dituzte:

– Espainiarra edo Europar Batasuneko kide den estaturen bateko herritarra izatea. Aurreikuspen hori beste herritar batzuei ere aplikatu ahal izango zaie,

Anuncios

Anuncios Particulares

MUSIKENE

1473

RESOLUCIÓN de 19 de febrero de 2010, de la Coordinadora de Musikene, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión del puesto de Director de Estudios Orquestales mediante relación laboral de carácter especial de alta dirección.

Que estando vacante, en el Organigrama aprobado por el Patronato del Centro Musikene, el puesto de Director de Estudios Orquestales, esta Coordinadora, en uso de las atribuciones que le confieren los Estatutos de la Fundación y las facultades contenidas en el apoderamiento otorgado por el Patronato en fecha 27 de octubre de 2009, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, y en el Real Decreto 1382/1985, de 1 de agosto, por el que se regula la relación laboral de carácter especial del Personal de Alta Dirección,

DISPONE:

Anunciar su cobertura mediante relación laboral de carácter especial de alta dirección, estableciéndose su Convocatoria en virtud de las siguientes

CLÁUSULAS

1.– Duración del contrato

La duración del contrato será de tres años prorrogables por acuerdo expreso de las partes por periodos no superiores a un año.

2.– Extinción del contrato

Se regirá por lo dispuesto en los artículos 10, 11 y 12 del Real Decreto 1382/1985, de 1 de agosto, que regula la relación laboral de carácter especial del Personal de Alta Dirección. Se determina, expresamente, que en el caso previsto en el Art. 11, de la citada norma, el alto directivo no tendrá derecho a indemnización.

3.– Requisitos de los aspirantes

Los aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos:

– Ser español o nacional de los Estados miembros de la Unión Europea. Esta previsión será también de aplicación a los nacionales de aquellos Estados a los

hain zuzen ere, Europar Batasunak sinatutako nazioarteko hitzarmenen indarrez langileen joan-etorri askea Europar Batasuna Eratzeko Itunean zehaztuta dagoen bezala aplikatzen den estatuetako herritarrei.

– Egin beharreko lanak normal egitea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.

– Zehapen-espeditente bidez administrazio publikoetatik bereizi ez izana izatea eta, epai irmo bidez, funtzio publikoetan aritzeko ahalmena kendu ez izana izatea.

4.– Egin beharreko lanak

Urtero programatzea «Orkestra/Banda» irakasgaia, 1999ko ekainaren 25eko ministro-aginduan azaldu-ta dagoena, zeinen bidez Musikako ikasketetako goi mailako curriculuma ezartzen baita, bai eta/edo EE-E-Sera egokitutako etorkizuneko curriculumean haien baliokide izango diren irakasgaiak ere.

Aipatutako irakasgaia garatuko den ikasturteko saio-egutegia ezartzea.

Orkestra-multzo edo asimilatutako multzo bakoitzean landu beharreko errepertorioa hautatzea.

Haietako bakoitzean parte hartuko duten ikasleen eta ordezkoen zerrendak prestatzea

«Orkestra/Banda» irakasgaia ematea, horretarako ezarritako multzo batean.

Gainerako multzoetako bakoitzean buru-lanak egiteko maisuak hautatzea, edo saiakera partzialak egiteko, eta ahaleginak egingo ditu gonbidatutako esku-hartzeen kalitate eta koherentzia ziurtatzeko ezarritako mugen barrutik ez ateratzeko.

«Orkestra/Banda» irakasgaiari dagozkion aktak sinatzea.

Zuzendari akademikoari jakinaraztea ikasleek irakasgai horri dagozkion jardueretan egin ditzaketen arau-haustekak.

Eginkizun horiek burutzeko, zuzendariak administrariak izango ditu laguntzeko, eta bere lanaren zati bat haren eskuetan utzi ahal izango du. Errejidore baten eta artxibo-liburutegi baten zerbitzuak ere izango ditu.

5.– Eskariak eta aurkezpen-epea

Deialdi honetan parte hartzeko eskariak Musike-neko koordinatzaileari bidaliko zaizkio eta Musika Etxeko bulegoetan aurkeztu beharko dira, Miramar jauregian, Donostian, hamar egun baliouduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

que, en virtud de Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores en los términos en que ésta se encuentra definida en la Tratado Constitutivo de la Unión Europea.

– No padecer enfermedad o defecto físico que impida el normal ejercicio de las funciones a desempeñar.

– No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas por sentencia firme.

4.– Funciones a desempeñar

Programar anualmente la asignatura «Orquesta/Banda», descrita en la Orden ministerial de 25 de junio de 1999, por la que se establece el currículo de grado superior de las enseñanzas de Música, y la o las asignaturas equivalentes en el futuro currículo adaptado al EEES.

Establecer el calendario de las sesiones en que se desarrollará cada curso académico la mencionada asignatura.

Escoger el repertorio a trabajar en cada conjunto orquestral o asimilado existente en el centro.

Confeccionar la plantilla de alumnos que intervendrán en cada uno de ellos y la lista de sustitutos que sea conveniente.

Impartir la asignatura «Orquesta/Banda», en uno de los conjuntos establecidos al efecto.

Seleccionar los maestros invitados para dirigir en cada uno de los restantes conjuntos, o para realizar ensayos parciales, cuidando siempre de mantenerse dentro de los límites presupuestarios establecidos tanto como asegurar la calidad y coherencia de estas intervenciones invitadas.

Firmar las actas correspondientes a la asignatura «Orquesta/Banda».

Comunicar al Director académico las eventuales infracciones de los alumnos en las actividades correspondientes a esta asignatura.

Para la realización de estas funciones, el Director dispondrá de personal administrativo de apoyo en el que podrá delegar la parte de su trabajo correspondiente. También dispondrá de los servicios de un regidor y de un servicio de archivo-biblioteca.

5.– Solicitudes y plazo de presentación

Las solicitudes para tomar parte en la presente Convocatoria se dirigirán a la Coordinadora de Música y se presentarán en dependencias del Centro de Música, sitas en el Palacio de Miramar, Donostia-San Sebastián, en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

6.– Aurkeztu beharreko agiriak

Zuzendarigaiak, eskari horiek ez ezik, NANaren kopia ere aurkeztu beharko dute, bai eta curriculum vitae-a ere. Curriculumean honako hauek aipatuko dira: titulu akademikoak, herri-administrazioan nahiz enpresa pribatuan izan dituzten lanpostuak, dituzten ikasketak eta egin dituzten ikastaroak, zer hizkuntza dakizkiten, bai eta aipagarri iruditzen zaizkien gainerrako merituak ere.

7.– Urteko ordainsari gordina

Ordainsaria kontratuan agertzen den bezala gertuko da ezarrita.

8.– Dedikazio eskusiboa.

Ordaindutako jarduera publikoarekin edo pribatuarekin bateraezina da, bere ondasunen kudeaketari eta ordutegi-eskuragarritasunari dagokienez izan ezik.

Donostia-San Sebastián, 2010eko otsailaren 19a.

Musikeneko koordinatzailea,
CARMEN RODRÍGUEZ SUSO.

6.– Documentación a presentar

A las citadas solicitudes los aspirantes deberán adjuntar copia del D.N.I. y acompañar su Currículum Vitae, en el que harán constar los títulos académicos que posean, puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como en la empresa privada, estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportuno poner de manifiesto.

7.– Retribución anual bruta

La retribución quedará establecida en los términos y conceptos determinados en el contrato.

8.– Dedicación exclusiva

Incompatibilidad con actividad pública o privada retribuida, con excepción de la administración del patrimonio propio y disponibilidad horaria.

En Donostia-San Sebastián, a 19 de febrero de 2010.

La Coordinadora de Musikene,
CARMEN RODRÍGUEZ SUSO.